



SEGURTASUNEN SAILBURUAREN AGINDUA, 2025-2028 ALDIRAKO SEGURTASUN SAILAREN DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTZEN DUENA

Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 6. artikuluan xedatzen denez, haren aplikazio-eremuan sartzen diren entitateek —besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorra— garatzen duten dirulaguntza-jarduera alde aurretik planifikatu beharko da, plan estrategiko baten bidez.

Plan horretan zehaztu behar da, betiere aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betez, zer helburu eta ondorio lortu nahi diren, zer epetan lortu behar diren, zenbateko kostuak aurreikusten diren, zer finantzaketa-iturri dituzten eta, dirulaguntzen jarraipena eta ebaluazioa egin ahal izateko, planaren helburuarekin erlazionatutako ekintzak eta adierazleak zein diren.

Sail bakoitzaren eta haiei atxikitako sektore publikoko entitateen dirulaguntzen planak sail bakoitzeko sailburuak onetsiko ditu; baina, gaiaren berezitasuna dela-eta, sailaz azpiko eremukoak diren dirulaguntza-planak edo sailei atxikitako entitateei bakarrik dagozkien dirulaguntza-planak presta daitezke. Planak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoaren egoitza elektronikoa argitaratuko dira. Horrek ez du kentzen beste atari batzuetan ere argitaratzea edo argitaratu behar izatea.

Alde horretatik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren 01/15 Zirkularren bidez, hori egiteko oinarritzko jarraibideak zehaztuta ditu.

Aipatu araua betetzeko, Segurtasun Sailaren 2025-2028 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu da. Planak Euskal Autonomia Erkidegoko 2025eko ekitaldirako aurrekontu orokorrak eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren 01/15 Zirkularra onartzen dituen abenduaren 20ko 8/2024 Legean jasotakoak jasotzen ditu, sailaren dirulaguntza-jarduera osoaren ikuspegia eskaintzeko, eraginkortasun- eta efiizientzia-mailak handitzeko eta publizitatea eta gardentasuna bultzatzeko.

Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Donostia kalea 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tel.: 945 01 87 58 – Faxa: 945 01 87 53 –





Lehenengoa. - Segurtasun Sailak 2025-2028 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzea. Agindu honi atxiki zaio.

Bigarrena. - Agindu hau argitara eman dadin agintzea, dagozkion bitarteko ofizialen bidez, eta, nolana ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren egoitza elektronikoaren bidez eta www.euskadi.eus webgunean txertatuta, Segurtasun Sailari dagokion atalean.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren data.

Bingen Zupiria Gorostidi
SEGURTASUNeko SAILBURUA



ERANSKINA
DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA
SEGURTASUN SAILA
2025-2028

I. SARRERA.

Plan hau Segurtasun Sailaren politika antolatzeko tresna da, helburu baitu onura publikoko edo gizarte-intereseko jarduerak sustatzea edo xede publikoak lortzeko bultzada ematea, dirulaguntzak emanda.

Nabarmendu beharra dago plana programatikoa dela, eta, beraz, edukiak ez duela ez eskubiderik ez betebeharririk sortzen. Izan ere, plana eraginkorra izan dadin, hainbat dirulaguntza-lerro gauzatu beharko dira, besteak beste, ekitaldiko aurrekontu-baliabideak kontuan hartuta.

Plan hau prestatzeko, jomuga diren interes publikoak aztertu dira, eta 2025-2028 aldirako izango diren baliabideekin alderatu. Horrela, eraginkortasun- eta efizientzia-mailak handituko direla bermatzen da, baita gure jardun-eremuan gardentasuna indartuko dela ere.

Hori guztia kontuan hartuta, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak Dirulaguntzen Plan Estrategiko hau prestatu du, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legean xedatutakoarekin bat etorritz eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoak prestatzeari buruzko 01/15 Zirkularreko jarraibideak erreferentziatzen hartuta.

II. PLANAREN EREMU OBJEKTIBOA, INSTITUZIONALA ETA IRAUPENA.

Segurtasun Sailak bere egitura organiko eta funtzionalari buruzko dekretuan esleitzen zaizkion eskumenen arabera kudeatzen dituen dirulaguntzak biltzen ditu plan honek.

Dirulaguntza kontzeptuaren barruan, planak pertsona publiko edo pribatuen alde egiten den diru-erabilera oro hartzen du, baldin eta onuradunen zuzeneko kontraprestaziorik gabe ematen bada, eta helburu jakin bat betetzeari, proiektu bat gauzatzeari, jarduera bat



egiteari edo portaera berezi bat hartzeari lotuta badago; betiere, finantzatutako proiektuaren, ekintzaren, jokabidearen edo egoeraren helburua onura publikoko edo interes sozialeko jarduera bat edo helburu publiko bat sustatzea bada.

Kanpo geratzen dira Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen aplikazio-eremutik berariaz kanpo geratzen diren kasuak (3.3 artikulua).

Denbora-eremuari dagokionez, planak 2025-2028 aldirako aurreikuspenak jasotzen ditu.

III. PLANTEATZEN DIREN HELBURU NAGUSIAK.

Sail honek sustapen-jarduerarekin bete nahi dituen helburuak desberdinak dira, sail horri esleitutako eskumen-eremuak kontuan hartuta.

1. helburua- Mugikortasun seguru eta jasangarria sustatzea.

Eusko Jaurlaritzak, Bide Segurtasuneko Plan Estrategikoen bidez, hezkuntzaren aldeko apustua egin du zirkulazioko istripuak prebenitzeko tresna gisa. Horretarako, Trafiko Zuzendaritzak hainbat ekimen sustatzen ditu Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzentzen zaizkien programa espezifiko bidez, Bizkarrezur Muineko Lesioa Aztertze Elkartearen (AESLEME) eskutik, eta, 2023az geroztik, bai eta bide-arriskuko beste kolektibo batzuei zuzentzen zaizkienak ere, BAKETIK Fundazioaren eskutik.

AESLEME (bizkarrezur-muineko lesioak ikertzeko elkartea) sortzeko arrazoia izan zen nabarmen ugaritu zirela trafiko-istripuen ondoriozko bizkarrezur-muineko lesioak eta garezurreko eta entzefalo-traumatismoak. Irabazi-asmorik gabeko espainiar entitate pribatua da, 1995. urtean onura publiko erakunde izendatua, eta istripuen ondoriozko lesio konponezinak prebenitzen jarduten du, heziketa-kanpaina prebentibo propioen bidez. Trafiko-agintaritzekin, tokiko eta autonomia-erkidegoetako enteekin lankidetzan aritzen da hainbat kolektibori zuzendutako istripu-prebentzioko programetan, hala nola, ikastetxeak, akademia militarrek, adinekoen zentroak, espetxeak, enpresak eta abar. Prebentzio- eta sentsibilizazio-kanpainen bidez, istripuak prebenitzea du eginkizun, bai eta lesionatu larrien eta jatorri traumatikoko hildakoen kopurua bide-hezkuntzako kanpainen bidez gutxitzea eta herritarrak istripuen ondorioez eta desgaitasuna duten pertsonen aurre egin behar dieten arazo fisiko, psikologiko eta sozialez sentsibilizatzea ere.



AESLEMErekin lankidetzan arituz, Trafiko Zuzendaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetako ikasleak trafiko-istripuen prebentzioaren arloan informatzeko eta sentsibilizatzeko helburua bideratzen du; hala, informazio- eta sentsibilizazio-jardunaldiak egingo ditu Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat ikastetxeetan.

Hitzaldi-solasaldiak emango dira lehen mailako prebentzioari (arriskuak eta prebentzioa), bigarren mailako prebentzioari (istripuetan esku hartzea) eta hirugarren mailako prebentzioari (istripuen ondorioak) buruz, fakultatiboen eta zirkulazio-istripu baten ondorioz bizkarrezur-muineko lesioak dituzten pertsonen eskutik, eta saioak ikasleen adinera eta mailara egokituta egongo dira.

Hartzaileak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergo edo Lanbide Heziketako 12 urtetik gorako ikasleak izango dira. Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzak aurretik aukeratuko du zein ikastetxetakoak.

BAKETIK Fundazioa 2006. urtean inskribatu zen irabazi-asmorik gabeko fundazio gisa, eta bere sorrera-helburuen artean dago eraldaketa pertsonalerako eta hezkuntzaren, bizikidetzaren, antolakuntzaren edo gizartearen eraldaketarako prozesuak, zerbitzuak eta baliabideak etikoki sustatzea. Horretarako hainbat programa eta metodologia ditu, horien artean antzerki foruma. Bide-segurtasunaren gaia, sarritan, entzule pasibo soil batzuk balira bezala erakusten zaie parte-hartzaileei, baina antzerki-forumari esker, ikusle ez ezik, aktore eta zuzendari izan daitezke; hori da, hain zuzen, bere potentzialtasun nagusia. Fikzioan errealitate bidegabe bat eraldatzeko aukera dute. Antzerkian eraldaketa horren subjektu izateak beren bizitza errealean ere antzeko eraldaketen subjektu izaten laguntzen die.

BAKETIKekin lankidetzan arituz, Trafiko Zuzendaritzak antzerki forumeko ekintzak bultzatzen ditu hiru eremu bereizitan: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak, «Norabide guztiak / Cambio de sentido» programaren bidez; Helduen Hezkuntzako ikastetxeetako ikasleak, «Atzera bueltarik ez / Sin vuelta atrás» programaren bidez; eta EAEko espetxeetan bide-segurtasunaren aurka egindako delituengatik zigorrak betetzen ari diren pertsonak.

2. helburua.- Kriminologia-ikaskuntzak eta -ikerketak sustatzea

Segurtasun Sailari esleitutako eskumenen artean delinkuentzia prebenitzea eta tratatzea dago, baita herritarren segurtasuna hobeto bermatzea ere. Helburu horiek lortzeko



planifikatutako neurrietako bat da epe ertain eta luzean kriminalitatearen ezagutza, prebentzioa eta desagertze modu eraginkorrena hobetzeko tresnak sortzea.

Arlo horretako ezagutzaren eta ikerketaren mesedetan, Segurtasun Saila, Ertzaintzaren Zuzendaritzaren bitartez, Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatearekin lankidetzan ari da, bi jarduera-ildoren bidez.

Alde batetik, UPV/EHUko Giza Eskubide eta Botere Publikoen UNESCO Katedrarekin lankidetzan dihardu; hitzarmen bat sinatu du, gorroto-delituei buruzko EAerako txosten propio eta espezifikoa egin dadin bultzatzeko, baita Europan arlo horretan egiten denarekiko konparazioa ere.

Segurtasun Sailaren helburu garrantzitsuenetako bat da delituen prebentzioa, eta, guztiak ere garrantzi handikoak izan arren, arreta berezia eskaini behar zaie gorroto-delituei; izan ere, mota horretako delituek biktimarengan inpaktu handia eragiteaz gain, biktima izan daitekeen taldea edo kolektiboa beldurtzen dute, eta, era berean, kalte komunitario eta sozial handia eragiten dute, oinarrizko eskubideak urratzen dituzte eta gizarte-kohesioari eta bakeari larriki eragiten diote.

Txostenaren helburua izango da kriminaltasun mota hori epe laburrean edo ertainean hobeto ezagutu, prebenitu eta eraginkorrago desagerrarazteko tresna bihurtzea. Horrez gain, tresna horrek operadore juridikoekiko koordinazioa erraztuko du, eta lagungarria izango da gorroto-delituekin izandako lan-esperientzia nazioarteko instantzietara eramaten lagunduko du; bereziki interesgarria izango da EAEko errealitatea Europaren errealitatearekin alderatu ahal izatea.

Bestalde, UPV/EHUko Instituto Vasco de Criminología / Kriminologiaren Euskal Institutuarekin (IVAC-KREI) lankidetzan aritzea aurreikusten da, jarduera akademikoak, azterlanak eta ikerketak garatzeko ikerketa- eta prestakuntza-jardueretan (batik bat aplikatuak). Jarduerok interes kriminologiko eta biktimologikoa izango dute batez ere, eta segurtasun objektibo eta subjektibo berezia behar duten elementuak ezagutu eta ulertzeko bide emango dute, betiere, bi erakundeen lanaren —IVAC-KREIren lan zientifikoaren eta Ertzaintzaren lan praktikoaren— sinergieiei esker, delinkuentzia prebenitzeko eta tratatzeko baliak daitezkeen emaitzak lortzea xede, bai eta herritarrei segurtasun-berme onena eskaintzea ere.



IVAC-KREIren jardueraren xede espezifikoa da zientzia kriminaletako ikerketa eta prestakuntza espezializatua da, eta, unibertsitate-institutu gisa, hainbat unibertsitate-zentrotako eta -sailtako irakasleak eta ikertzaileak biltzen ditu, bai eta aipatu aztergaiarekin zerikusia duten eremu publiko eta pribatuetako profesionalak ere. Estatuan eta nazioartean harreman pribilegiatuak dituzte atzerriko zentro eta unibertsitateekin eta beste ikerketa-institutu batzuekin.

IVAC-KREIk horrelako proiektu bat egiteak Segurtasun Sailean, oro har, eta Ertzaintzan, bereziki, arlo horren gaineko ezagutza handitzea eta arlo horretako ikerketa-jarduerak ugaritzea ekarriko du.

3. helburua.- Ertzaintzako langileek Polizien eta Suhiltzaileen Jokoetan parte har dezaten sustatzea eta bultzatzea.

Polizien eta Suhiltzaileen Jokoen helburua, alde batetik, kirolari esker mundu osoko polizien eta suhiltzaileen arteko esperientziak partekatzea da, segurtasuneko zerbitzu publikoen arteko laguntasuna sustatzeko; bestetik, adibidearekin forma fisiko eta profesional onari eutsi diezaioten motibatzea.

Polizia-lanak egoera fisiko berezia eskatzen du; eskakizun hori kidegorako hautaketa-prozesuan bertan egiten da, baina egoera horri ibilbide profesionalean zehar eutsi behar zaio.

Ibilbide profesionalean zehar sasoiko egotea sustatzeko, Segurtasun Sailak polizia-kidegoko kideek jarduketa publikoetan, esaterako, polizia eta suhiltzaileen jokoetan, parte hartzea sustatzen du. Izan ere, parte hartzea, jokoon sonagatik, akuilu eta pizgarri gisakoa da beste funtzionario batzuentzat, ariketa fisikoa eta kirola egiteko ohitura izan dezaten, sasoiko egiteko eta errendimendua eta segurtasuna areagotzeko esparru profesionalean.

Egiaztatu da kirol-jarduera publikoetan parte hartzearen adibidea, batez ere komunikabideetan duen oihartzun publikoagatik, joan den urteetan parte-hartzearekin lortutako arrakastak kontuan hartuta, gainerako funtzionarioek kirol-jardueraren bidez gaitasun fisikoari eustearen komenigarritasuna ikustean eragiten duela, eta aldi berean, kirol-lorpenak taldearentzat gauza prestigiotsutzat hartzen direla.



Bizigarri hori oso komenigarria da, kontuan hartuta funtzionarioentzat jarduera fisikoa mantentzeko derrigorrezko programak ezartzeak lekarzkeen zailtasunak eta eragozpenak, eta agenteek behar bezalako egoera fisikorik ez izateak harreman zuzena izango lukeela laneko errendimenduarekin eta langilearen beraren osasunarekin.

Aitzitik, kirol-jarduerak eragin positiboa du lanarekin lotutako gaitasun fisiko zehatz batzuk hobetzean, gorputza mugitzeko gaitasun efizienteen eta nekea kudeatzean, alderdi psikologikoak hobetzean, aurrez aurreko fisiko batean arriskuak murriztean eta osasunarekin harremanetan dauden alderdiak hobetzean.

4. helburua.- Etxeko indarkeriak, familia barruko indarkeriak, genero-indarkeriak eta indarkeria matxistak eragindako arriskuen prebentzioa.

Segurtasun Sailak eskumena du autonomia-erkidegoko poliziaren arloan eta herritarren segurtasunaren arloan.

Ertzaintzak indarkeria mota oro prebenitzeko egiten du lan, eta arreta berezia jartzen du etxeko indarkerian, familia barruko indarkerian (gurasoen aurkako indarkeria eta seme-alaben aurkako indarkeria), genero-indarkerian eta indarkeria matxistan, prebenitzeko asmotan. Halaber, halakorik gertatuz gero, biktimek erasotzaileen aurrean ahalik eta segurtasun handiena izan dezaten lortzeko lan egiten du; horretarako, EBA (Etxekoen eta Emakumeen Babesa) erabiltzen du kudeaketa-tresna gisa. Aplikazio informatiko bat da, indarkeria mota horien aurkako polizia-lana jaso eta biltzen duena.

Biktima guztiei babes eraginkorragoa eskaintzeko asmoz, Ertzaintzak UPV/EHUren laguntza eskatu zuen 2006. urtean, indarkeria-gertakari larriak gertatzeko probabilitate handiena erakusten duten adierazleak identifikatzeko eta, aldi berean, biktima bakoitzari lotutako arrisku-maila zorrotz kalkulatzeko gai izango zen tresna zientifiko bat bilatzeko, arrisku-maila horren arabera neurri polizialak hartzeko helburuarekin.

Lan horren ondorioz, 2007. urtean, «Bikotekidearen kontrako indarkeria larriaren arriskua iragartzeko eskala» sortu zen. Ertzaintzak eskala hori etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren espedienteetan sartu zuen, bikote-harremanetako arrisku mailak kalkulatzeko erabilgarritasun praktikoko tresna erraz gisa. Biktimari egokitutako arrisku-maila kalkulatu, babes-neurri polizial batzuk esleitzen zaizkio.



Genero-indarkeriaren, etxeko indarkeriaren eta indarkeria matxistaren arriskua aurreikusteko, biktimen premia espezifikotara egokituta haiek babesteko neurriak hartu ahal izateko, ezinbestekoa da indarkeria mota horien errealitatea sistematikoki eta modu berrituan ezagutzea. Eta, horretarako, beharrezkoa da datuak eta informazioak biltzeko sistematika bat izatea, biktimen eta erasotzaileen profila ezagutzea ahalbidetuko duena, aztertu eta ondorioak ateratzeko. Bere helburuak betez, UPV/EHUK ikerketa soziala sustatzen du, EAEko gizartearen errealitatea hobeto ezagutzeko bere eremu guztietan.

5. helburua.- Herritarrek Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemari parte hartzea bultzatu eta sustatzea.

Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 27ko 1/2017 Legegintzako Dekretuak eta hori garatzen duen Herritarrek larrialdiei aurre egiteko euskal sistemari duten borondatezko parte-hartzeari buruzko urtarrilaren 19ko 24/2010 Dekretuak xedatzen dute larrialdiei aurre egiteko eta babes zibilerako EAEko sistemari herritarrek parte hartzeko eta laguntzeko sare bat, babes zibilerako interesa duten boluntario-antolakundeek osatua. Horien artean daude Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmena duten EAEko babes zibileko entitate laguntzaileak.

Lankidetzaz hitzarmenen bidez, babes zibileko eta larrialdiei aurre egiteko jardueretan modu erregularrean lankidetzan aritzeko konpromisoa hartzen dute entitate horiek. Izan ere, entitateon helburu nagusia larrialdi-egoeretan pertsonen eta ondasunen arreta ematea izan behar da, helburuetako bat babes zibileko zerbitzuak ematea izan behar da eta izaera altruista izan behar dute.

Lankidetzaz hitzarmen horietan jaso behar da, besteak beste, entitate laguntzaileak larrialdi-egoeretan parte hartzeagatik izaten dituen gastu eta kalteen konpentsazioa, agintari eskudunak parte-hartze hori eskatzen duenean.

Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak, Segurtasun Sailaren bitartez, lankidetzaz hitzarmenak sinatu ditu babes zibileko entitate laguntzaile hauekin:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Gurutze Gorriaren batzorde autonomikoa
- Euskal-DYA Federazioa
- Euskadiko Laguntza Txakurren Taldea
- Euskal Espeleologo Elkargoa
- Euskal Mendizale Federazioa.



6. helburua.- Eusko Legebiltzarrean ordezkariak duten alderdi politikoen ohiko funtzionamendu-gastuei erreparatzea.

Autonomia-erkidegoek, alderdi politikoen finantzaketari buruzko 8/2007 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, baldintzatu gabeko urteko dirulaguntzak eman ahal izango dizkiete beren legebiltzarretan ordezkariak duten alderdi politikoei, dagozkien aurrekontu autonomikoen kontura, beren funtzionamendu-gastuei aurre egiteko. Dirulaguntza horiek alderdi bakoitzak bere legebiltzarretako azken hauteskundeetan lortutako eserleku eta boto kopuruaren arabera banatuko dira, araudi autonomikoan ezarritakoaren arabera.

Ez dagoenez gai hori arautzen duen araudi autonomikorik, Euskal Autonomia Erkidegoan aipatu den legearen 3.2 artikuluan ezarritako irizpidea aplikatzen da, hots, Estatuak Diputatuen Kongresuan ordezkariak duten alderdi politikoen funtzionamendu-gastuetarako dirulaguntza banatzeari buruz ezarritakoa.

Beraz, esleipen hori hiru kopuru berdinetan banatzen da:

- a) Horietako bat, Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskundeetan alderdi politiko bakoitzak lortutako eserleku kopuruaren proportzioan.
- b) Gainerako biak, alderdi bakoitzak hauteskunde horietan lortutako boto guztien proportzioan.

Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskundeak 2024ko apirilaren 21ean egin ziren, eta alderdi politikoek emaitza hauek lortu zituzten:

	Eserleku kopurua	Boto kopurua
EAJ-PNV	372.456	27
EH BILDU	343.609	27
PSE-EE/PSOE	150.752	12
PP	98.144	7
SUMAR	35.402	1
VOX	21.696	1

7. helburua- Ikerketa ozeano-meteorologikoa sustatzea.



Helburua da itsasertzeko itsas inguruneko plataformen bidez informazio ozeano-meteorologikoa lortzera bideratutako ikerketa sustatzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko sare ozeano-meteorologikoa hiru plataforma ozeano-meteorologikoz osatuta dago (EAEko portuetan daude), bai eta ur sakonetako bi buia ozeano-meteorologikoz, kostaldeko radar-sare batez eta hiru kostalde-bideometriako sistemaz ere. Sare hori EAEko meteorologia-zerbitzuak dituen baliabideetako bat da.

AZTI Fundazioa zentro teknologiko aditua da itsas eta ozeanografia-ikerketan, eta Zientzia eta Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen barne dago. Irabazi-asmorik gabeko eta interes orokorreko entitatea da, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-, meteorologia- eta, bereziki, ozeanografia-garapenarekin konprometitua. Hogeita bost urte baino gehiagoko ibilbidea du ozeanografiari eta itsas ekosistemei buruzko azterketan eta ikerketan, eta hainbat ikerketa egin ditu itsasertzaren eta itsas baliabideen zaintzaren esparruan.

Zentro teknologiko espezializatua izatea du eginkizun, eta ikerketa estrategiko eta aplikatua egiten du ezagutza berria sortzeko. Kalitate zientifiko altuak, ikerketaren emaitzak aplikatzearekin konbinatuta, bere ikerketa-taldea nazioartean erreferente izatea lortu du. AZTI fundazioa EuroGOOS irabazi-asmorik gabeko nazioarteko antolakunde ospetsuko kidea da, eta Europa mailako ozeanografia operazionalarekin konprometituta dago.

Segurtasun Sailak, babes zibilari, larrialdiei eta meteorologiari, klimatologiari eta antzeko zientziei dagozkien eskumenak betez, komenigarritzat jotzen du AZTI Fundazioarekin lankidetzan aritzea, Euskal Autonomia Erkidegoko sare ozeano-meteorologikoko arlo horietan zaintza, informazioa, mantentzea, kudeaketa, ezagutza eta zabalkundea sustatu eta bultzatzeko.

8. helburua.- Jokoarekiko adikzioek eragindako arriskuen prebentzioa.

Azterlanak egin ondoren, Jokoaren Euskal Behatokiak joko arduratsua sustatzeko eta joko problematikoa prebenitzeko ekintza-plan bat egin du. Plan horren abiapuntua honako diagnostiko hau da: jokoaren eskaintza eta eskuragarritasuna handitu dira, bai eta



gizartearen kezka ere, pertsona eta gizarte-kolektibo jakin batzuegan nahi ez diren ondorioak izan ditzakeelako.

Aipatutako ekintza-planaren helburuetako bat da jokoaren erabilera desegokiarekin lotutako arriskuak murriztea eta adikzio-arazoak dituzten pertsonen tratamendu integrala eskaintzea.

Horretarako, irabazi-asmorik gabeko entitateentzako laguntza ekonomikoak ezarri dira, joko patologikoari buruzko informazio- eta prebentzio-jarduerak garatzeko. Dirulaguntza horren helburua da jokoarekin lotutako jokabide arriskutsu eta arazotsuei buruz egiten dituzten informazio eta prebentzio unibertsaleko jardueren eusten laguntzea.

Joko patologikoari buruzko informazio- eta prebentzio-proiektu unibertsaltzat joko dira honako helburu hauek dituzten ekintzak proposatzen dituztenak: joko patologikoaren arriskuarekiko kalteberatasun-egoerak hautematea; joko arduratsuen ezaugarriak eta joko-arriskuko egoera baten adierazleen ezagutza sustatzea; teknologia berriek jokoan dituzten arriskuak ezagutaraztea; eta joko patologikoaren aurkako borrokako jarduerak eta baliabide publiko eta pribatuak ezagutaraztea. Proiektuak, besteak beste, honako kolektibo hauei zuzenduta egon daitezke: adingabeak, gazteak eta nerabeak, familiak eta hezkuntza-komunitatea.

Laguntza-programa 2020-2024 aldiari garatu da, eta proiektuak justifikatzeko memoria guztiak berrikusi dira. Esan daiteke laguntza jaso duten pertsonen kopuruak gora egin duela: batez beste, 5.000 pertsonak hartu dute parte edo jaso dituzte jarduerak (hitzaldiak, tailerrak, esperientziak partekatzea, materialak egitea, etab.). Ildo horretan, materialak zabaltzeak pertsona gehiagorengana iristea ahalbidetu du. Proiektu askorekin batera web-argitalpenak, aldizkariak, liburuxkak, gidak, etab., eman dira.

Askotariko topaguneak izan dira, hartzaileen izaeraren arabera: eskolak, gazteen topalekuak, elkarten lokalak edo ekipamendu soziokulturalak. Era berean, proiektu horietan erabilitako eta horietatik abiatuta egindako materialak erabiltzen jarraitu da, joko patologikoari buruzko informazioa emateko eta hura prebenitzeko.

Zenbat pertsonengana iristea lortu den eta ekintza horiekin zenbat harreman eta prozesu hasi diren ikusita, bidezkoa da programari eustea, ekimen horiei jarraipena eta garapena emateko.



IV. ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZA-LERROAK.

Jarraian, planaren ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak zerrendatzen dira, saileko unitate organikoaren arabera:

1. HELBURU ESTRATEGIKOA.- MUGIKORTASUN SEGURU ETA JASANGARRIA SUSTATZEA.

1. dirulaguntza-lerroa: Bizkarrezur-muineko lesioa ikertzeko elkarte (AESLEME)

2221. programa: TRAFIKOA

a) HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK

- Helburua: ikastetxeetako ikasleak trafiko-istripuen prebentzioari buruz informatzea eta sentsibilizatzea.
- Ekintza: lehen mailako prebentzioari (arriskuak eta prebentzioa), bigarren mailako prebentzioari (istripurik izanez gero nola jokatu) eta hirugarren mailako prebentzioari (istripuen ondorioa) buruzko solasaldia.
- Adierazleak: hitzaldi-solasaldien kopurua eta parte hartu duten ikasleen kopurua.

b) AURREKONTU-KONPROMISOAK

2025. urtea	2026. urtea	2027. urtea	2028. urtea
45.000 €	45.000 €	45.000 €	45.000 €

c) SEKTORE HARTZAILEAK ETA DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

- Sektorre hartzailea: Bizkarrezur-muineko lesioa ikertzeko elkarte (AESLEME).
- Emateko prozedura: Agindua, Segurtasuneko sailburuarena, dirulaguntza izendun bat ematekoa.



2. dirulaguntza-lerroa: Baketik fundazioa

2221. programa: TRAFIKOA

a) HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK

- Helburua: erabakiak hartzearen eta arriskua hartzearen arteko lotura ezagutzea, eta portaerak identifikatzea, errepideko ezbeharren ondorioak prebenitzeko edo minimizatzeko.
- Ekintza: antzerki interaktiboko saioak, parte-hartzaileei inplikatzeko eta aurre egin behar dieten bide-arriskuko egoerak identifikatzeko errazten dietenak, bai eta horiei aurrea hartzeko eta aurre egiteko irtenbideak edo alternatibak bilatzea ere.
- Adierazleak: antzerki-forumeko saioen kopurua eta parte-hartzaileen kopurua.

b) AURREKONTU-KONPROMISOAK

2025. urtea	2026. urtea	2027. urtea	2028. urtea
45.000 €	45.000 €	45.000 €	45.000 €

d) SEKTORE HARTZAILEAK ETA DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

- Sektor hartzailea: Baketik fundazioa.
- Emateko prozedura: Agindua, Segurtasuneko sailburuarena, dirulaguntza izendun bat ematekoa.

2. HELBURU ESTRATEGIKOA.- KRIMINOLOGIA-IKASKUNTZAK ETA - IKERKETA SUSTATZEA.

1. dirulaguntza-lerroa: UPV/EHuko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO Katedra

2223. programa: ERTZAINZA ZERBITZUAN

a) HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK



- Helburua: gorroto-delituen ezagutza, prebentzioa eta desagertzea hobetzea; izan ere, delitu horiek desagerrarazteaz bat, berdintasuna, tolerantzia, elkarbizitza eta errespetua loratuko baitira, eta horixe da gizarte demokratiko aurreratu ororen asmo gorena.
- Ekintza: gorroto-delituei buruzko EAerako txosten propio eta espezifiko bat egitea, bai eta Europan arlo horretan egiten denarekiko konparazioa ere.
- Adierazleak: txosten kopurua.

b) AURREKONTU-KONPROMISOAK

2025. urtea	2026. urtea	2027. urtea	2028. urtea
30.000 €	30.000 €	30.000 €	30.000 €

c) SEKTORE HARTZAILEAK ETA DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

- Sektore hartzailea: UPV/EHUko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO Katedra.
- Emateko prozedura:
 - 2025. urtea: Erabakia, 2022ko martxoaren 22koa, Gobernu Kontseiluarena, 2022ko martxoaren 24an bi alderdiek sinatutako lankidetzaz hitzarmenaren bidez zuzeneko dirulaguntza ematekoa.
 - 2026-2028 urteak: Agindua, Segurtasuneko sailburuarena, dirulaguntza izendun bat ematekoa.

2. dirulaguntza-lerroa: UPV/EHU, Instituto Vasco de Criminología / Kriminologiaren Euskal Institutua (IVAC-KREI)

2223. programa: ERTZAINZA ZERBITZUAN

a) HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK

- Helburua: segurtasun objektibo eta subjektibo bereziaren eremuan lortzen diren emaitzen ezarpen praktikoa lortzea helburu duen ikerketa garatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko ikuspegi kriminologiko eta biktimologikotik.
- Ekintza: azterlanak eta txostenak; ikastaroak, jardunaldiak eta bestelako prestakuntza-jarduerak; eta urteko udako ikastaro bat.
- Adierazleak: azterlanen eta txostenen kopurua; ikastaro, jardunaldi eta bestelako prestakuntza-jardueren kopurua; udako ikastaroen kopurua.



b) AURREKONTU-KONPROMISOAK

2025. urtea	2026. urtea	2027. urtea	2028. urtea
125.000 €	125.000 €	125.000 €	125.000 €

c) SEKTORE HARTZAILEAK ETA DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

- Sektore hartzailea: UPV/EHU, Instituto Vasco de Criminología / Kriminologiaren Euskal Institutua (IVAC-KREI).
- Emateko prozedura:
2025. urtea: Erabakia, 2022ko apirilaren 12koa, Gobernu Kontseiluarena, 2022ko apirilaren 29an bi alderdiek sinatutako lankidetzaz hitzarmenaren bidez zuzeneko dirulaguntza ematekoa.
2026-2028 urteak: Agindua, Segurtasuneko sailburuarena, dirulaguntza izendun bat ematekoa.

3. HELBURU ESTRATEGIKOA.- ERTZAINZAKO LANGILEEK POLIZIEN ETA SUHILTZAILEEN JOKOETAN PARTE HAR DEZATEN SUSTATZEA ETA BULTZATZEA.

Dirulaguntza-lerroa: Polizien eta Suhiltzaileen Jokoetan parte hartzen duten Ertzaintzako kirolzaleentzako laguntzak

2223. programa: ERTZAINZAZ ZERBITZUAN

a) HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK

- Helburua: Ertzaintzaren irudi positiboa sustatzea, bai Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan, bai EAetik kanpo, eta kirol-lehiaketen eta kirol-jardueraren berezko balioak sustatzea, lanbiderako sasoiko egon ahal izateko une oro.
- Ekintza: polizia-jarduerarekin lotura handiena duten kirol-diziplinetan parte hartzea eta postu jakin bat egiaztatzea.
- Adierazlea: parte-hartzaileen kopurua.



b) AURREKONTU-KONPROMISOAK

2025. urtea	2026. urtea	2027. urtea	2028. urtea
20.000 €	20.000 €	20.000 €	20.000 €

c) SEKTORE HARTZAILEAK ETA DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

